



Gaurkoan Hezkuntza Plataformen Topaguneak ikasturtean egindako lanaren balorazioa eta datozen erronkei aurre egiteko moduak aztertzeko bilera egin du. Ondoren prentsaurreko bat egin dute eta bertan salatu dute Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernuek LOMCEa aplikatzen ari direla, EAEko gobernuaren kasuan Heziberri planaren bitartez. Adibidez aurten hirugarren mailako ikasleek egin behar zituzten azterketen bitartez, LOMCEak inposatzen dituenen antzekoak izan direnak. Aurten Hego Euskal Herriak 178 ikastetxetan egin diote planto 3.mailako azterketa horri.

Beste alde batetik datorren ikasturtean 3.mailako azterketaz aparte 6.mailakoak eta DBHko 4nekoak edukiko ditugu. Hauen aurrean ere, planto egingo dutela aurreratu dute plataformetako kideek. Gainera ebaluazio sistema orokorrean zalantzan jarri nahi dute. Bestetik orain arte lortu duten elkarlan sarea zabaldu eta indartu nahi dute, beste pertsona zein eragileekin elkarlana sustatuz.

```
alt=""  
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/kle2jNXkHuo','avreloaded0','400','320','  
9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',  
{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmod  
e:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```